

ANTROPOLOGÍA Y POBREZA - Pilar Monreal

Antropología y pobreza urbana izeneko liburu baten 8.kapituluaren inguruan hausnartuko dugu aurrerantzean. Antropologoa den Pilar Monreal Requena du izena idazleak.

Hasteko, pobrezia absolutua, biztanleko errentaren %50era iristen ez denean gertatzen dela esan dezakegu. Aldiz, pobrezia erlatiboa, berez pobreak diren komunitateetan bizi direnek, bai zerbitzu publiko, bai pribatuetan kalitate baxuagoko harreta jasotzean datza. Pobrezia bere osotasunean ulertu ahal izateko, honetan parte-hartzaile, arau eta funtzionatzeko erak ezagutzeko beharra dago.

Pobrezia definitzekotan, gizakiak bizirauteko baliabide materialak ez edukitzean datzala esan dezakegu. Gizarteko egitura, funtzionamendua eta ezaugarriak ulertzea eta aztertzea beharrezkoa da pobrezia ulertzeko.

Lewisek, Wilsonen ez bezala, integralki egin nahi zion aurre pobrezia, baina badaude beste hainbat modu honi aurre egiteko. Eame eta Goodek, esaterako, pobrezia arazo ekonomiko soil batera mugatzen dute, eta lan merkatuan pobrezia egoeran daudenak sartu ez izanak, norbanakoaren arazo modura izendatzen du, eta ez arazo estruktural gisa. Aldiz, marxistek, pobrezia aberastasunaren ondorio moduan definitzen dute.

Wolfek, ekonomia politikoaren arazo moduan definitzen du pobrezia, testuinguru ekonomiko, politiko eta ideologikoen ondorio larrienen gisara. Izan ere, berdintasunaren politika eta araudiaren aurrean, desberdintasun soziala justifikatzeko dauden mekanismo ideologikoen, gizartean laguntza-baliabideetarako eskubidea nork duen eta nork ez duen erabakitzen dute, hein batean.

Pobreak, gizarte sistema honen baitan dira sozialki isolatuak eta arlo ekonomiko, politiko zein kulturalean baztertuak. Gizarteak, pobrezia bera, mekanismo kontrolatzaile eta diziplinatzaile moduan erabiltzen baitu. Behartsu edo pobrea beraz, langile klasean kokatzen dugu.

Baliabide eskasia da, funtsean, pobrezia, eta honetatik dator gainontzekoa. Baina estatuak, baliabideen kudeatzaile gisa, banaketa hori egiteko kriba moduko bat egin behar du: pobrezia duin eta ez-duinaren arteko desberdinketa egiten du. Azken hau, gizartearen funtzionamenduaren legitimizatzaile moduan ikusi dezakegu.

Berdintasunaren eta askatasunaren printzipioak, desberdintasunean eta talde batzuen eta besteen mendekotasunean oinarritutako gizarte errealitatera egokitzeko aukera ematen du. Ahaidetasun-sistemei buruzko teoriak, adibidez, funtsezko izan dira generoen arteko harreman patriarkalak ulertu eta legitimatzeko.

Ikerketa prozesu oro, objetibotzat saldu arren, klase eta etnia ikuspegiaren eraginaren menpe dauden zientzialariek editen dituzte eina, gertaera batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa emango zaie.

Aipatutakoak, antropologian eragin berezia du gainera. Izan ere, erabiltzen diren metodoa eta ikerketa teknikak (landa-lana egitean, adibidez) pertsona, talde, klase sozial edota estatuaren inguruan jakintza handitzen ari da, hauen arteko gatazkak ikusiko ditu, eta jarrera bat hala beste hartuko du.

Antropologia, gizartearen zati integral bat den heinean, gizartaren beraren kontraesanak azaleratzen eta isladatzen ditu, botere-egitura erreproduzitzen. Antropologia, gizartaren parte delako, eta bertan dauden balio zein aurreiritzi batzuk barneratuta dauzka, eta honen ondorioz, disziplina bera esplotazioa areagotu eta boterea areagotzeko erabili izan da historian zehar. Hala ere, disziplina baztertua ez litzateke izango konponbidea, baizik eta honetaz jabetzea.

1. Azaldu zure hitzekin zer esan nahi duen egileak ‘nortasun jariakorra’-rekin (‘identidad fluida’) eta zein integrazio eredua sustatuko luke halako ikuskera batek. Dena ondo argudiatu.

“Nortasun jariakorra” delakoak pertsonaren nortasun aldagarritasunari egiten dio erreferentzia. Egun nagusi den eta kontsensu soziala duen nortasun bakarraren aurrean, nortasun jarraikor honek pertsonak identitate bat baino gehiago izatea proposatzen du. Horrela, nortasun anitzak eta aldakorrak izatearen aukerak bizi osorako nortasun bakar aldagaitza dugun ustearekin hausten du. Gainera, Douglasek esaten duenaren harira, identitate bakar honen funtzioa sistemaren baitan orden soziala mantentzea litzateke, ondorioz, eraikuntza sozial bat gehiago izanik.

Nortasun jariakorrak, nortasun bakarrak ez bezala, errealitate ezberdinen perspektiba handiago bat eskaintzen digu, honen ulermen osoago bat izanik. Hori dela eta, kultura aniztasuna ulertu eta onartzeko erraztasun gehiago izango da nortasun aldagaitza duenarekin alderatuz. Integrazio integral edo osoago bat sustatuko luke, zeinetan imigranteak ez luketen izango kultura identitate bakarra barneratu beharra (haien jaiotzetikoa edota bertakoa); aitzitik, identitate anitzak libreki eratzeko aukera izango lukete.

2. Zergaitik dago multikulturalitatearen azpian gehiegizko erlatibismo kulturalaren diskurtsoa?

Kontzeptu honek berekin dakar pertsona kultura bakar baten partetzat jotzea, bere sorterri edota familiaren identitate beraren esleipena eta, beraz, arestian aipatutako nortasun bakar horren jarraipena. Ondorioz, kulturak zein nortasuna ez dira aukerazkotzat hartzen, dagokizun zerbaiten gisan baizik, hauek aldatzeko edonolako aukerarik izan gabe.

Multikulturalismo horretan, kultur horien arteko elkarrekintza alboratzen denez, hauek komunean dituzten ezaugarriak ez dira kontuan hartzen, bakoitza bere testuinguruan eta bertakoek soilik epaitu dezaketela iradokiz. Horrela, edozein praktikaren aurrean kultura horretatik at bizi den edonork ezingo du bere iritzia eman, bere ikuspegi etnozentrizatik, bere balioetatik, epaituko baitu. Hori dela medio, norbanakoaren duintasun edo biziaren aurka egiten duten ekintzak ezingo ditugu zalantzan jarri, hau arriskutsua izanik eta, aldi berean, kulturen arteko harreman edo erlazio oro ukatuko da.

3. Mundua, kulturen mosaikoa bezala ikusi beharrean, zer da egileak proposatzen duena, konkretuki eskola testuinguan?

Egileak mundu anitzaren aurrean ikuspegi edota perspektiba aldagarria proposatzen du, identitate ezberdinen eraketa eta aldagarritasuna nahiz elkar elikatuko duten esperientzia anitzen elkartrukea balio garrantzitsutzat hartuaz. Eskolen zein zientzialari sozialen eginkizuna hau bideratuko duten estrategiak gauzatzeko beharrezkoak diren teoriak eratzea litzateke.

Nahiz eta egilea jakitun den arazoen erantzunak aurkitzea eginkizun zaila dela, zientzia sozialek arazo hauen aurrean ikuspegi ezberdinak ikusarazi ditzaketela uste du, honek, gerora, hausnarketa indibidualak eragin ditzakeelarik.

FEMISMOA: TEORIA ETA PRAKTIKA

GENERO KONTZEPTUA - Mari Luz Esteban

1. Zein da testuaren hasieran egiten duen feminismoaren definizioa?

Testuaren sarreran, feminismoa azken hamarkadetan emakumeek lortutako garaipenen arrazoitzat definitzen du, eta homogeneotik gutxi duen mugimendu indartsu eta eragin handiko bezala.

2. Zein ezaugarri ditu ikerketa feminista batek?

Feminismoan, proposamen desberdin asko daudela dio idazleak. Hala ere, komunean hiru ezaugarri nagusi ditu feminismoaren ikerketa orok. Lehenengo ezaugarria, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak daudela egiaztatzea. Bigarrena, determinismo biologikoaren aitzakipean egiten den desberdintasunen argudiaketa problematizatzea. Eta azkenik, hirugarrena, gizartea aldaketarantz bideratzen hastea, momentu askotan, honen aldaketa nahi duten beste talde batzuekin batera borrokatuaz.

3. Zein izan zen ikerketa feministetan 80. hamarkadan eman zen aldaketa?

80.hamarkadan, gizon eta emakumeen artean zeuden desberdintasunak azalerratzeko eta azaltzeko utzi zion feminismoak eta desberdintasun hauen eratzeko jarri zuen indarra; nagusiki, generazio prozesua aztertzean: erakunde, erlazio, ideologiko, biologiko edota sozialean, esate baterako.

4. Nola definitzen du generoa?

Generoa, emakume eta gizonen ekintza eta jarduteko eran, adierazteko eran edota ideietan, boterea eskuratzeko desberdintasuna sortzen duena da. Honek, esparru sozial desberdinetan eta gizon eta emakumeek betetzen dituzten paper sozialean hierarkizazioa sortzen du.

5. Zein da 'sexu' eta 'genero' kontzeptuen artean egiten duen bereizketa? Zergatik dio sexua ere eraikuntza soziala dela?

Sexua, emakume eta gizonen ezaugarri fisiko, anatomiko eta fisiologikoa izendatzeko hitz bezala azaltzen du, eta generoa aldiz, gizartean beran, emakume eta gizonen jarduteko eran edota adieraztekoan dagoen botere arrakala moduan. Sexua eraikuntza soziala dela dio, biologiaren inguruko interpretazioetako bakoitza ikuspuntu desberdinetatik egin daitekeelako. Eta orokorrean, gizarteak hierarkizatuak egon direnez, eta biologia eta harremanak dinamikoak direnez, ezinda sexua modu objektiboan eta eraikuntza sozial bat ez balitz bezala ulertu.

6. Zein izan zen generoaren inguruko ikuspegian gertatutako aldaketa 90. hamarkadan? Zergatik aldarrikatu ziren generoa ulertzeko erlaziozko moduak?

Generoa, gizon eta emakumeak barrutik homogeneoak baina kanpora begira, guztiz bananduta dauden talde gisa ulertzetik haratago joan ziren planteamendu berriak. Generoa ulertzeko erlaziozko moduak erabiltzeak,

7. Zergatik defenditzen du 'genero-sistema' kontzeptua 'patriarkatu' ordeztuz?

Patriarkatu kontzeptuak, ez duelako genero-sistema kontzeptuak bezainbeste irekitasun ematen, ikuspuntu orokorragotik edota tokiko ikuspuntutik gizartea begiratzeko eta honen inguruan hausnartzeko.

8. Zein aldaketa eman dira boterea ulertzeko moduan? Zein eragin izan dute generoa ulertzeko moduan?

Bertikalki antolatzen den zerbaite ulertzetik, piramidearen goian daudenek boteredunak izatetik, harreman moduan ulertzen hasten da batzuen ikuspuntutik. Harremana, pertsonen eta taldeen artean etengabe mugimenduan egongo litzateke. Ikuskera honen eraginaren artean, generoa ez da kulturaren errotuta dauden estereotipoen barneraketa, nortasunen eraketa. Honen ordez, generoa, ekintzarekin lotuko da. Bai banaka, bai gizartean, eta gorputzarekin erlazionatzen du zuzenean, gorputzasunaren kontzeptu irekiarekin.

9. Esku-hartze eta politika feministetan zergatik aipatzen du emakumezkoenak bakarrik diren espazioak eta mistoak bateragarriak direla?

Bateragarriak direla dio, arrazoi desberdinengatik. Hasteko, modu honetan jarduteak antolaketa eta ekintza desberdinen inguruan dagoen ikuspuntuak zabaltzeko. Jarraian, estrategia eta ekintzak pentsatzean zentratzea ahalbidetuko luke honek, talde gehiago eratzean zentratu beharrean. Eta azkenik, emakumeek jasaten dituzte arazoak, bere egin ditzaten gizonek, nahiz eta jadanik hasi diren pixka bat.

10. Zer dio politika eta esku-hartzeek sortzen dituzten pribilegio galerei buruz?

Politika eta esku-hartze hauek jasoko dituztenek, beharrezkoa dute, gizarteko hainbat sektorek bere pribilegioak galtzea. Hala nola, ekonomikoki, botere postuei dagokionean edota gizarte mailako prestijioari dagokionean. Honekin bat dator, gizarteko beste hierarkizatzaileak diren zapalkuntzekin daukan erlazioa, klase edota etniarekin adibidez. Ez baita berbera, emakume batzuek duten klase posizioa eta garbitzaile batena.

SHAKESPEARE OHIANEAN - Laura Bohannon

1. Zein da irakurgaiaren gaia edo ideia nagusia?

Izaera antropologikoa duen artikulu bat da, Laura Bohannon-ek idatzia. Artikulu honetan, Bohannon-ek *Tiv* etniako herrixka bateko agureei *Hamleten* istorioa azaltzen dien une deskribatzen du. Ideia nagusia, *Hamlet* bezalako obra unibertsal bat oso modu dezberdinetan interpretatu daitekela da, norberak ikuspegi etnozentrismo batetik interpretatzen duelako.

2. Zure ustez, zer pentsatuko zuen Laura Bohannon-ek Hamlet-en izaera unibertsalaz pasarte hau bizi eta gero?

Artikulu bertan azaltzen duen bezala, gertaera honen aurretik Bohannon-ek *Hamlet*-en izaera unibertsala defendatzen zuen. Bere ustez, giza kondizioa oso antzekoa denik herri guztietan, *Hamlet* bezalako obra batek interpretazio bakarra izan dezake. Baina pasarte eta gero ez du berdina pentsatuko; izan ere, herrixkako agureek ez dituzte familia, sorginkeria edota presajioekin lotatuko hainbat auzi onartzen edota ulertzen. Beraz, haien ikuspuntu kulturaletik begiratuta, beste modu batean interpretatzen dute istorio bera.

3. Jaso zutabe batean Laurak azaldutako Hamlet-en hiru pasarte eta ondoko zutabe batean Tiv-eko gizonen egindako horren interpretazioa.

Fama eta maila handia duen pertsona bat hiltzen delarik Ingalaterran, semeak eskuratzen du bere herentzia eta segida osoa eta hola da aukeratzen nor izanen den postuaren jabe.	Pertsona zaharrena dela nagusia izanen diote, berak duelako jakintza gehien haien arabera.
Ingalaterran maila handia dutenek emazte bat dute eta besteak beren zerbitzariak bilakatzen dira. (= monogamia)	Nagusiak pentsatzen du emazte bat baino gehiago ukan behar duela, haiek direlako bere zerbitzariak izanen. (= poligamia)
Ingalaterran, emazte batek gizon batekin amodioa egitean, gizon horrekin ezkontzen bada, bere balio osoa galtzen du. Hortako ez zuen nahi Poloniok Hamletek bere alabarekin segitzea, baizekien ez zirela ezkonduko.	Garrantzia gehien duenak tribuarentzat, familiak emanen dizkion opariak izanen dira, alaba baino. Azkenean, emaztearen prezioa orekatzen da emanen dizkieten opariekin.

4. Hausnartu ezazu talka kulturala delako kontzeptuaz irakurgai honetan oinarrituz.

Talka kulturalaz hitz egiten dugunean, pertsona batek berea ez den inguru kultural batean dagoenean bizi deun sentrazioa da. Kasu honetan, historia honetako protagonista berearengandik erbat debserdina den kultura batean dago, eta honek informazio gainkarga zein hizkuntzen arteko itzultze pank sortu ditzakeen gaizki ulertuak eragiten ditu.

5. ‘Bestea’ gu geu hobeto ezagutzeko erabiltzen dugun kategoria da. Zein zentzutan aplikatu daiteke baieztapen hau kasu honetan?

“Beste” kultura ezberdin bat ezagutzerako garaian gure kulturarekin dituen ezberdintasun nabarmenak ikusten ditugu. Era horretan, gure kultura sakonago ezagutzera eraman gaitzake.

1. Azaldu irakurritakoaren arabera zer esan nahiko duen Malinowskik “kulturaren teoria gertakari biologikoetan oinarritu behar dela” aipatzen duenean?

Naturak, biologikoki baldintza finko batzuk jartzen dikzigu, eta gizaldi osoa edo norbanakoa aurrera ateratzeko baldintza biologiko hauek behar bat sortzen zaigu. Bizitza dinamizatzeko, baldintza biologiko hauek errazagoa izango balitz bezala.

2. Azaldu zein den “kultura” kontzeptuaren eta “bigarren ingurunea” kontzeptuaren arteko lotura.

2.ingurunea, gizakiak eginiko tresna edo lanabesekin sortutako kultura antzekoa da. Bakoitzak dituen baliabideak erabilia sortuko litzatekeen bigarren kultura bat bezalakoa.

3. Jaso, beti ere Malinowskiren teoriaren aburuz, zeintzuk liratezken hiru oinarritzko premia. Ondoko zutabeen adierazi horietatik sortutako bigarren mailako ingurunearen edo eratorriko beharren adibideak.

- Arrazaren oinarritzko premiak (gizakiaren elikadura, ugaltza eta higieen premiak): Hau, aurrera eramateko, gizakiak ingurune artifizial bat sortzera ohiten da. Honez gain, gizakiak bizirauteko behar dituen oinarritzko gauzak hemen sartzen dira.
- Premia kultural berriak: Hierarkia bat egon behar da, gizarte antolatu edo ordenatu bat lortzeko, eta antolamendu honen aurrean Hezkuntza eta ekonomia ona lortzeko. Premia hauek belaunaldiz belaunaldi transmititu behar direnak dira.
- Ezagutza eta etikaren premia: Gizakiak inguruan duen guztia ezagutzearen sena du. Etikari dagokionez, burutu behar dituen jardueren egoera etikoaz interesaren da.

4. Momentu batean Malinowskik metodo konparatiboa aipatzen du eta bere kulturaren teoria honekin lotura zuzena duela baieztatzen du. Zer dira, bere ustez, antropologiak konparatu behar dituen kulturen artean?

Malinowskik dio, dibergentziak ulertzeko ezinbestekoa dela konparazio-neurri komun argi bat. Hau horrela, posible izango da kultura bakoitzaren premiak eta hauen inguruan egikatirtutako erakundearen arrazoiak eta desberdintasunak aztertu eta ulertzea.

5. Azaldu eta justifikatu Malinowski kulturaren ikuspegi unibertsalista ala partikularista batetik ari den.

Malinowskik kulturaren ikuspegi unibertsalista du. Antolakuntzaz hitz egiten hasten denean zera esaten du, erreferentzia egiten dion antolamendu honen egituraren faktore nagusiak unibertsalak direla; izan ere, faktore hauek talde antolatu guztiei aplikagarriak dira eta, aldi berean, unibertsalak dira gizadi osoan.

Aurrerago ere esaten du, bilaketa enpiriko eta teorikorako zimenduak jartzeko, ekintza instituzionaleko zenbait printzipio unibertsalki baliozkoak garatu behar ditugula.

6. Erlazionatu eskema edo diagrama baten bidez artikulua honetako kontzepturik aipagarrienak. Besteren artean agertu behar direnak; kultura, erakundea, funtzioa, antolamendua, lehen mailako premiak, eratorritako premiak.

Malinowskik dio kultura instituzio edota erakunde desberdinen arteko alderaketa bat egin daitekeela. Bestalde, oinarritzko premia eta premia eratorriak daudela dio.

7. Lehenengo orrialdeko lehenengo paragrafoan eskeintzen du Malinowskik 'kultura' kontzeptuaren definizioa. Aztertu itzazu definizio horren aspektu ezberdinak klasean kulturari buruz ikasitako ezaugarri eta aipamenak kontutan izanik. Testuan zehar jasotako bestelako baieztapenak erabili ditzazkezu justifikazio gisa.

Malinowskik kultura holistikoa dela dio, honek, kulturak beregain, ezaugarri batzuk dauzkala esan nahi du, eta hauek, sistema integral bat osatzen dutela. Bi osagarri nagusi bereiz ditzakegu kulturari: batetik ideazionala eta bestetik materiala. Hauen bien arteko nahasketa kultura integrala edo holistikoa izango litzateke.

- Kultura materiala: "kontsumitzaileen tresnek eta ondasunek".
- Kultura ideazionala: "gizaki talde desberdinek dituzten estatutuek, gizakien ideiek eta eskulangintzek, sinismenek eta ohiturek".

BAZTERKETA INGURUKO TEORIEN ESKEMA

	Chicagoko Eskola	Pobreziaren kultura	Teoria kritikoa	Azpiklasearen teoria
Non eta noiz	1920.hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetan.	1960. hamarkadan, AEBn	1970.hamarkada	1980.hamarkadatik aurrera
Nork	Robert Park antropologoa	Oscar Lewis	Marx eta Keynes	Wilson
Momentuko egoera sozio-ekonomikoa	Gizarte hegemonikoa ez integratua. Zonalde marginaletan ez zuten erlazioak erdigunearik.	<ul style="list-style-type: none"> - Bigarren Mundu Gerra osteko hazkunde ekonomikoaren ondorioz ertain klase bat sortu zen. - Ongizate Estatua garatzen hasia da. - Lan munduan aldaketan (Taylorismoa). 	<p>Mundua krisi egoeran.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Lanaren banaketa internazional berria. -Gizarte garatuen desindustrializazioa. -Hirugarren sektorearen zabalkuntza zabala. -Hegoaldeko industrializazioa eta metropolizazioa. <p>Honen guztiaren ondorioz lan merkatua desegituratzen da eta honek ondoren Ongizate Estatuaren galera azkarra dakar.</p>	Testuinguru soziopolitiko eta ekonomiko berria; merkatuaren berregituraketa eta desindustrializazioa. Marjinazioa handitzen doan arren, geroz eta ikusezinagoa da.
Oinarritzko irizpide teorikoa (azalpen luzea)	<p>Hiri berrantolaketak norbanako eta giza taldeen integrazioa bidera dezake.</p> <p>Espazio fisikoa marjinazioa bultzatzeko funtsezko faktorea da. Ondorioz, integrazio soziala soilik leku pribilegiatuetan ematen da.</p> <p>Leku hauek sortzeko zentroa eta zonalde marjinalak lotu behar dira.</p>	<p>Pobrezia eragiten duen faktore bakarra ez da ekonomikoa, familia desantolaketaren eraginez ematen da.</p> <p>Norbanakoak balio sozialak bereganatzen dituenen, ezinezkoa da horietatik libratzea.</p> <p>Marjinazio egoeran dauden pertsonengan ez dago</p>	<p>Mundu krisia ez da ekonomikoa, politikoa baizik.</p> <p>Globalizazioaren eta internazionalizazioaren eraginez, ordura arte oinarritzko oreka bat zuten hainbat sektore sozial prekarizatuak geratzen dira.</p>	<p>Marjinazio prozesu berriak sortzen dira, azpiklase berri bat eratuz.</p> <p>Azpiklasea, pertsona jakin batzuentzat aukera posibleak murrizten dituen sistema lehiakor baten aurrean ematen den erantzuna da, eta azpikultura belaunaldiz</p>


		lehiakortasunik, biziraupena baizik.	Ongizatearen Estatuaren krisiak gizartearen oreka minimo bat zuten subjektu eta kolektibo asko pobrezia baztertuak geratzea ekartzen du.	belaualdi transmititzen da.
Bazterketa gaitzeko estrategia edo proposamena	Gizarte zientzia berriak aplikatu zituen hirian. Antropologia erabiltzen hasi zen gizarte konplexuak aztertzeko gizarte sinpleak aztertzeko erabiltzen zen metodologia berdinarekin. Lehen zerbitzu sozialak sortzen dira. Kontzientziatzea ez dela egoera naturala. Hezkuntzak marjinazioaren aurka daukan garrantzia.	Hezkuntzaren bidezko sozializazioarako mekanismo bat erabiltzea beharrezkoa da. Estrategia espazialaz gain, kultura arloa ere bultzatu behar da (hezkuntzaren bitartez).	Egitura osoa aldatu eta marjinazioa errealitate garrantzitsu batean bilakatu. Hortaz, espazio marjinatuetan kulturalaren ideia desagertu eta marjinazioa jasaten duten subjektuaren inguruan ere ikuspegi galera ematen da. Planteamendu hauen ondorioz, Azpiklasearen teoria sortuko da.	Bazterketa edo marjinazioa gaitzeko, beharrezkoa da marjinazio hori agerraraztea, ikustaraztea eta ez ezkutatzea. Azpiklase izateari uztea posible litzateke merkatu eta politika logikara sartzen laguntzeko politika edo esku hartze bereziak egongo balira.
Oinarrizko kontzeptu teorikoak (hitz klabeak)	- Ghettoak (zonalde marjinal bat kultura zehatz batekin. Kultura berriak sortzen dutenez marjinazioa ikuspuntu antropologikotik planteatzen hasten da. Bi edukien gainean oinarritzen da. <u>Eduki soziokulturala</u> : Kultura, baloreak eta jokamolde propio sortzen dute. 1990 etik aurrera ekonomia ere. <u>Eduki espaziala</u> : Hiriaren parte dira. Banaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartearen osaketa multietnikoa - Ongizate estatua - Familia desantolaketa - Kultur marjinatuak 	<ul style="list-style-type: none"> -Ordena soziala -Krisi politikoa -Ongizate estatua -Globalizazioa edo internazionalizazioa -Zerbitzu sozialen pribatizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Azpiklasea - Berregituraketa - Desindustrializazioa - Talde minoritarioak

	egoera politikoa eta ekonomikoaren ondorioa			
Norena da bazterketaren ardura?	Politika eta ekonomiaren kudeaketa txarraren ondorioa.	Kontrol Sozialerako sistema baten eta gizarte dominantearen balio sistemaren ondorio da marjinazioa.	Estatuarena	Sistemarena eta estatuarena

TEORIA ANTROPOLOGIKOEN ESKEMA

	Bilakaera	Difusionismoa	Partikularismo Historikoa	Funtzionalismoa Estruktural-funtzionalismoa	Estrukturalismoa	Sinbolismoa
Sorrera garaia eta tokia	XIX. mendearen erdialdea (Ipar Amerika eta Europa-Britania Handia)	XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera (Europa- Britania Handia)	XX. mendearen hasiera (Ipar Amerika)	XX. mendearen hasiera (Europa- Britania Handia)	XX. mendearen bigarren erdialdea (Europa- Frantzia)	XX. mendearen azken hamarkadetan (Europar eta Ipar Amerikan)
Antropologo aipagarrienak	L. H. Morgan (1818-1881) E.B. Tylor (1832-1917)	Fritz Graebner (1877-1934) Fr. W. Schmidt (1868-1959)	Franz Boas (1858-1942)	A.R. Radcliffe-Brown (1881-1955) B. Malinowski (1884-1942)	C. Levi-Strauss (1908-2009)	V. Turner (1920-1983) C. Geertz (1926-2006)
Oinarrizko irizpide teorikoa	Ez dago harremanik kulturen sorreran baina guztiek garapen estadio edo maila berdinegatik pasa dira prozesu hau lineala delarik. Mendebaldeko gizartea da zibilizazio maila gorena duena (ikuspegi etnozentrista)	Kulturek asmakuntza gaitasun murriztua dute eta beraien joera naturala beste kulturak imitatzea eta kopiatzea da. Zibilizazioaren elementuak Egipton sortu ziren eta hortik zirkulu kulturalen bitartez mundura zabaltzen ziren.	Teoria eboluzionista zalatzea. Horren ordez, kultura aniztasuna nagusi dela eta kulturek amankomunean dutena euren arteko ezberdintasuna dela defendatu zuen. Kultura bakoitza bere prozesu historiko eta giza antolakuntzaren emaitza da.	Ez dira lege orokorrik existitzen errealitatea ulertzeko, aldiz, esperientzian oinarritutako ezagutza lortu behar da; fenomeno sozial bakoitza bere testuinguruan aztertu. Kulturak funtzio zehatza betetzen du gizartean.	Gizakion adimen batasuna existitzen da eta hau kulturari esker ematen da. Kulturaren inbariantek unibertsalak dira eta horiei esker mundu osoko pertsonak elkar uler gaitzke arau multzo unibertsalak existitzen diren heinean. Aldiz, aniztasun kulturala bakarrik praktikan ematen da.	Gizakiek sinboloetatzen erabileraz arduratzen da eta konkretuki, ekintza sinbolikoaren ondorioak gizartean aztertzen ditu. Gizarte indar aktiboak dira sinboloak norbanakoen interesak asetzen dituenak, elkartasuna mantentzen laguntzen dute ere.
Kontzeptu teorikoak	Garapen lineala	Konplexu kultural Mailegua Zirkulu kulturalak	Aniztasun kulturala Erlatibismo kulturala	Funtzioa Gizarte egitura Erakundea	Egitura Inbariantek	Sinboloak Ekintza sinbolikoa
Zein ikuskera du kulturaz?	Bakarra eta unibertsala da. Aspektu tekniko (materiala) eta ez	Bakarra eta unibertsala da. Konplexu edo egitura ezberdinez osatzen da eta hauek zabaltzen dira zibilizazio	Guztiak paregabeak dira hauen bilakaera historiko partikularren emaitza direlako.	Unibertsala da. 1) Gizakion beharizan biologiko eta psikologikoak asetzen dituenak	Unibertsala. Giza egituraren adierazpena da hau, ideien munduan dagoelarik bakarrik.	Sinbolo sistema bat da gizakion praktika soziala gidatzen laguntzen duena.

	materialen multzoaz osatua.	guneetatik beste guneetara.	Konplexutasun kulturalen erlazioak ematen dira baina norabide guztietara. Bakoitza bere testuinguruaren arabera aztertu behar da.	2) Norbanakoak gizartearen beharrietara menperatzen duena	Komunikazioa ahalbidetzen duen sistema sinbolikoa da.	Kontrol mekanismo bat bada ere gizadiaren ezaugarriak baldintzatzen baititu. Ez dago ideien munduan, eguneroko praktikan baizik.
--	-----------------------------	-----------------------------	---	---	---	--



Bilakaera teoriari aurre egiteko proposamen teorikoak.
 Ezagutza enpiriko eta etnografikoari garrantzia handiena.
 Ikuspegi positibista nagusi: gizartea, gorputzaren metáfora.

Ikuspegi positibista gaitzen da.